

Mendebaldeko intonazioaren inguruan¹

Gorka Elordieta

0. SARRERA

Txosten honetan erakutsi nahi duguna da nola azertu ditzakegun euskalki ezberdinen azentu, tonu eta intonazioaren arteko loturak. Adibide gisa, Bizkaiko doinu-azentuzko euskalki bat hartuko dugu, Lekeitiokoa. Euskalki honetan alde batetik hitz mailako tonuak ditugu, hitzak daukan azentua gauzatzen dutenak. Bestaldetik, hitzek osagarri intonazionaletan elkartzen dira, eta hauek ere euren tonuak dituzte, osagarri hauek osatzen dituzten hitzei ezartzen zaizkielarik. Beraz, edozein esaldiko hitzek bi maila ezberdinetako tonuak daramatzate azalean, eta denek batera esaldiaren intonazioa osatzen dute.

¹ Lan hau Elordieta-ren (agertzeko a) bertsio askoz laburtua eta euskaratua da, eta irakurlego zabal bati eskeintzeko bezalako estiloan idazten saiatu naiz, Iñaki Gaminde editorearen eskez. Irakurle adituak edo interesatuak jo dezala lan horretara edo Jun eta Elordieta-ra (1997), zehaztasun, adibide eta azalpen gehiago nahi ezkerro.

1. AURREZ ALDEKO KONTZEPTUAK

Hitz batek azentua daukanean esan nahi duguna da hitz horren silaba bat dela prosodikoki beste guztiak baino nabarmenagoa. Nabarmentasun hau ezaugarri fonetiko batzuen bidez gauzatu daiteke: ahots-indarra edo intentsitatea, iraupena eta tonua. Gaztelera bezalako hizkuntza batetan, adibidez, hitz bateko silaba azentudunaren ezaugarri fisiko nagusiak iraupena eta tonua dira. Normalean silaba azentuduna beste silabak baino luzeagoa da, tonu gorakada batekin ere agertzen da, eta sarritan beste silabak baino intentsitate gehiago dauka, baina ez beti (Quilis 1981, Hualde 1997:32-48). Beste hizkuntza batzutan hiru ezaugarri hauetariko bat, bi edo hirurak dira azentuaren ezaugarri fonetiko nagusiak, entzuleak silaba bat azentudun bezala entzutea eragiten dutenak.

2. LEKEITIOKO AZENTU EREDUA

Gaztelera, ingelesa edo beste hizkuntza asko ez bezala, lekeitieraz hitz guztiek ez daramate azentua azalean. Hitz batzuk beti daukate silaba bat besteak baino prominenteagoa dena prosodikoki, baina beste batzuk ez daukate beti halako silabarik; bakarrik isolaturik ahoskatzen direnean, edo aditzaren aurre-aurrean doazenean (hots, galdegaigunean; cf. Altube 1929, Azkue 1931-2). Beste testuinguruetan ez dute silaba bat besteak baino prominenteagoa edo nabarmenagoa denik prosodikoki. Lehengo hitz motako adibide bat *amúma* hitza izango litzateke, beti ere silaba azentudun bat izango duelako atzizki asko zein gutxi izan edo mota bateko atzizki batzuk zein beste motatakoak erantsi. Eta ez du ajola aditzaren aurre-aurrean edo beste toki baten badoa; beti izango du azentua azalean. Hurrengo adibideak erakusten dute eredu hau (silaba azentuduna azentu marka akutuarekin adierazten dugu):

- (1) a. amúma etorri da etxera
- b. anumári azpikogonía erosi dotzat
- c. etorrí da amúma etxera

Bigarren motako adibideak ondorengoak izango lirateke. Ikusi dezakegunez, *laguna* hitza aditzaren aurre-aurrean doanean azentua darama ((2a)-k erakusten duen bezala), baina beste inguru baten ez dauka azenturik ((2b)-(2c)):

- (2) a. laguná jun da
- b. laguna Bilbóra jun da
- c. Bilbóra jun da laguna

Lehenko motako hitzak *azentudunak* deituko ditugu, berez azentua daramatelako, eta bigarren motatakoak *azentugabeak*, berez azenturik ez dutelako eta bakarrik testuinguru zehatz batzutan daramatzatelako azentua. Hitz azentudunek beti daramate azentua azkenaurreko silaban, eta azentugabeek azkeneako silaban, azentua azaltzen dutenean. Dena den, garrantzitsua da azpimarratzea azentudunak edo azentugabeak direnak ez direla hitzak, erroak edota atzizkiak baizik. Hau da, *amúma* bezalako erro bat azentuduna da, eta horregatik edozein atzizki gehituta ere osatutako hitza azentuduna izango da (ikus (1b)). Baina badaude atzizki azentudunak ere, eta hauek erro azentugabe bati atxiki daitezke, hitz osoa azentudun bihurtuz. Adibidez, *lagun* erroari gehitzen badiogu *-gaz* atzizkia, sortzen den hitza azentudun bihurtzen da, i.e., azentua azkenaurreko silaban ezartzen da, eta hitzak inguru guztietan izango du azentua. (3)-ko adibideetan ikusi daiteke *lagunágaz* hitzak azentua azkenaurreko silaban daramala inguru edo kokagune guztietan. Konparatu (3b-c), (2b-c)-rekin:

- (3) a. lagunágaz jun da
- b. lagunágaz Bilbóra jun da
- c. Bilbóra jun da lagunágaz

-gaz bezalako atzizkiak *-tik* eta pluralgile guztiak ditugu: *-ak*, *-eta-*, *-en* (genitibo plurala), eta abar (ikus Hualde, Elordieta eta Elordieta 1994:52-55, non zerrenda osoago bat ematen den).

Erro eta atzizkien arteko azentudun/azentugabe ezberdintasuna lexikala da. Hau da, erro eta atzizki batzuk Lekeitioko euskalkiaren “hiztegian” edo *lexikoian* markatuta daude azentudun bezala, edo hobeki esanda, azentu sortzaile bezala. Markaturik daudela esaten dugunean adierazi nahi duguna da morfema hauek azentugabeak baino gutxiago direla euskalki honetan, eta erro azentudun ia guztiak maileguak direla (zaharrak edo berriak), edo hitz konposatuak baita ere. Hau Bizkaiko iparraldeko beste hainbat euskalkietan ere aurkitzen da, Uribe-Kostan, Urdaibain, Gernikaldean eta Lea-Artibai kondairetan (ikus Hualde 1997, 7. kapitulua). Euskalki hauek “doinu-azentuzkoak” bezala ezagutzen dira, ezberdintasun lexikalak dituztelako hitz azentudun eta azentugabeen artean.

Lekeition azentua tonuaren bidez gauzatzen da. Silaba azentuduna goiko tonu baten ahoskatzen da beti, hurrengo silaban beherakada bat dagoelarik. Hitz azentudunetan azkenurreko silabak goiko tonua darama, eta hurrengoak (hots, azken silabak) beheko tonua darama. Hain zuzen ere, tonu beherakada hau da azentuaren adierazlea doinu-azentuzko euskalkietan, ez iraupena edo intentsitatea, Hualde, Smiljanic eta Cole-k (1999) aurkitu duten bezala. Hitz azentugabeetan, azkeneko silabaren bukaeran gertatzen da goitik beherako jeitsiera. Hitz isolatua bada, azken silaban dago goitik beharako jeitsiera; aldiz, aditzaren aurrean badao, azken silaba honek goiko tonua dauka eta jarraiki tonu jeitsiera dago aditzaren lehen silabaraino. Honako adibideek eredu hau erakusten dute; marrek goiko eta beheko tonuak adierazten dituzte:

(4) a. a|mú|ma

b. la|guná|gaz

c. la|guná|_

Ikusi daitekeen bezala, azentua berdin gauzatzen da hitz azentudunetan (i.e., (4a-b)) zein azentugabeetan ((4c) azentugabea da izatez, (2)-n ikusi dugun bezala, baina azentuarekin ahoskatzen da isolaturik doanean). Azentua goiko tonua gehi beherakadarekin gauzatzen denez beti, ateratzen den ondorioa da fonologikoki tonu-azentua (i.e., ingeleseko *pitch accent*) G^*+B dela, azkenurreko silabari ezartzen zaiolarik. Aspalditik arrunta bihurtu den Pierrehumbert-en (1980) tonu tipologia jarraituz, Lekeitioko euskalkiko azentua $G(\text{oiko})^*+B(\text{eheko})$ motakoa dela argi geratzen da (ingelesezko H^*+L -tik hartuta). Mota honek silaba azentudunak goiko tonua daukala eta jarraian tonu beherakada dagoela adierazten du. Izartxoak silaba azentudunarekin lerratzen den tonua adierazten du, hau da, goiko tonua; '+' ikurrak azentua tonu biko sekuentziakin gauzatzen dela adierazten du. Fonetikoki, hau da ahoskatzerako orduan, goiko tonua silaba azentuduneari gauzatzen da, eta beheko tonua hurrengo silaban, baina fonologikoki, hau da, sistema fonologikoan, G^*+B azentua silaba bati eransten zaio (azkenurrekoa edo azkena).

Orduan, (4)-ko adibideak honela markatuko genituzke, G^*+B tonu-azentua eta azkenurreko silabaren arteko lerraketa marrekin adieraziz (puntuak silaben ateko mugak adierazten dituzte):

(5) a. G^*+B
|
a.mú.ma

b. G^*+B
|
la.gu.ná.gaz

- c. G*+B
 |
 la.gu.ná

Adibideek ere erakusten duten bezala, silaba azentudunaren aurreko silabetan beheko tonua edo goiko tonua izan dezakegu; hortaz ari-tuko gara hurrengo atalean, besteak beste.

3. LEKEITIOKO INTONAZIOA

Intonazioaz ari garenean, esaldi mailaz ari gara, ez hitz mailaz. Esaldi baten intonazioa bere melodia dela esan dezakegu, tonu gorakada, beherakada eta mantentzeekin osatutakoa. Baina melodia horrek barne egitura bat dauka, hau da, melodia edo intonazioa osatzen duten tonuak ez dauzkate jatorri berdinak, eta maila ezberdinetan datzate. Alde batetik hitzen azentuak ditugu, goitik beherako tonuen bidez gauzatzen direnak. Hitz azentudunen tonu-azentuak jatorriz eurenak direla esan dezakegu, hau da, erroen edo atzizkien ezaugarri lexikalak, goian aipatu bezala. Hitz azentugabeek isolaturik edo aditzaren aurrean agertzen direnean azentua daukate, eta hau galdegaigunearen ezaugarri prosodiko bat dela esan dezakegu. Bestaldetik, hitzek azaltzen dituzten beste beheko eta goiko tonuak ditugu, silaba azentudunekin kokatzen ez direnak. Beti daukagu beheko tonu bat hasierako silaban, gorakada bat bigarren silaban, eta goiko tonu hau mantendu egiten da silaba azentuduneraino. Hona hemen (1b) edo (3b)-ren intonazioa, eskematikoki adierazita:

- (6) a. a|mumá|ri az|pikogoní|a erosi dotzat
 b. la|guná|gaz Bil|bó|ra jun da

Patroi hau isolaturik eta aditzen aurretik ahoskatzen diren hitz azentugabeek ere jarraitzen dute, goiko (4c)-k eta (7)-k erakusten dutenez:

(7) la|guná|jun da


Baina hitz azentugabe baten atzetik datorren hitz batek ez du beheko tonurik izaten lehen silaban. Hau da, (2b) bezalako esaldiak honako intonazioa dauka, *Bilbóra* hitzaren lehen silabak goiko tonua daramalarik, ez beheko tonurik, (6b)-n bezala:

(8) la|guna Bilbó|ra jun da


Zergatik daukagu honako intonazioa hemen, eta ez (6b) bezalako? Argi dagoena da lehen silabak beheko tonua ala goiko tonua izango duen ez dela hitzaren ezaugarri lexikal baten ondorioz erabakitzen. Hala izango balitz, *Bilbóra* bezalako hitz batek beti izan behar luke patroi berbera, baina ez da horrela.

Eredu hauek azaltzeko, proposatzen duguna da silaba azentudunekin lotuta ez dauden tonuak intonazio mailakoak direla, ez hitz mailakoak. Pierrehumbert eta Beckman-en (1988) lan garrantzitsuak argi erakusten du intonazioak egitura prosodikoa daukala. Sintaktikoki esaldi bat sintagmetan edo osagai sintaktikoetan banatzen den bezala, intonazioan ere esaldi bakoitza intonaziozko osagaietan edo taldetan banatzen da. Eta sintasizko osagaiak jerarkiko antolatuta dauden bezala, intonaziozko osagaiak jerarkikoki daude antolatuta. Azentuzkoak ez diren tonu horiek osagai hauei lotuta daude, nahiz eta gero fonetikoki hitzen silaba zehatz batzuei ezarri. (9)-ko diagramak erakusten duen bezala, behetik gora hasita lehen osagaia Azentu Osagaia da (Pierrehumbert eta Beckman-en *Accentual Phrase*), hitz bat edo gehiago izan ditzakena eta tonu jakin batzuk

dituena ezaugarri bezala. Hurrengo osagaia Erdi-Mailako Osagaia da (Pierrehumbert eta Beckman-en *Intermediate Phrase*), Azentu Osagai bat edo gehiago hartu ditzakena. Azkenik, gorengo osagaia dugu, Intonazio Osagaia (*Intonation Phrase*). Osagai honek Erdi-Mailako Osagai bat edo gehiago hartzen ditu (ikusi Elordieta (agertzeko a) detaile gehiagorako):



Argiago ikusteko, Lekeitioko euskalkiko esaldi zehatzak nola aztertu daitezken ikusi genezake. Adibide gisa, har dezagun ondorengo esaldia:



Oinarrizko maiztasun kurbak erakusten dutenez (ikus 1. irudia), tonu igoera bat dago esaldiaren lehen silabatik (i.e., *ni*) bigarrenera (i.e., *.re*), eta goiko tonu hau mantendu egiten da hurrengo beste bi hitzeko silabetan, hirugarren hitzaren silaba azentudunera arte (i.e., *.ná*). Honen ostean tonu beherakada dago, *.ri* silaban, eta hurrengo hitzeko lehen silabak ere tonu bajua dauka (i.e., *geu*). Silaba honen ostean berriz daukagu tonu gorakada bat (*.re* silaban), lehen bezala, eta goiko tonu hau ere mantendu egiten da hurrengo hitzeko silaba azentudunera. Azentuaren ostean tonu bajua daukagu, aditzaren lehen silaban (aditz laguntzailearen azentua ez da ondo ikusten, baina egon badago gailurtxo bat). Honek aditzera ematen duena da tonu txertaketa patroiz zikliko bat dagoela esaldi honetan, azentu batekin

bukatzen dena: hasierako silaba tonu bajaran dago, bigarren silaban tonua gora doa, eta goiko tonu hori mantendu egiten da hurrengo tonu-azentua aurkitu arte, hainbat hitz eskubirago egon daitekena. Azentuaren ondoren, berriro gauzatzen da eredu berdina, hurrengo azentura arte, eta honen ondoren berriz hasten da zikloa, eta abar. Beraz, esan genezake patroiz zikliko bakoitzak honako forma eskematikoa daukala: [B G- G*+B]. B hasierako silabarekin txertatzen da, G- bigarren silabarekin, eta G*+B silaba azentudunarekin. Patroiz zikliko hau Azentu Osagaiaren patroiz bat da Lekeitioko euskalkiko intonazioan. Hau da, Lekeitioko esaldi baten, behetik gorako tonu igoera daukagunean bada-kigu intonazioaren osagai bat hasi dugula, Azentu Osagaia (hots, honen ezkerreko mugan gaudela). Beraz, (10) esaldian hiru Azentu Osagai daude: *nire arrebien lagunári, geure diruá* eta *emon dotzáte*.

Pierrehumbert eta Beckman-en (1988) arabera, Tokyoko japonieran ere halako patroia daukagu Azentu Osagaietan. Baita, Tokyoko japonieran bezala, Lekeitioko Azentu Osagai batek ezin du azentu bat baino gehiago izan. Azpimarratzeko antzekotasunak dira hauek, ezpairik gabe.

Orain azaldu behar dena da nola bigarren silabatik eta azentudunarenainoko silabak goiko tonuan agertzen diren beti. Azterketa posible bi daude: pentsatu daiteke azentuko G* tonua hedatzen da eskubitik ezkerretara, lehen silabako B tonura arte. Honek G- tonua ez dela esistitzen esan nahiko luke. Beste pobibilitatea da bigarren silabarekin txertatzen den G- tonua hedatzen dela eskubirantz. Azken pobibilitate hau da zuzena gure ustez, zeren badaude esaldi batzuk G*+B azenturik gabeko Azentu Osagaiak dituztenak, (11)-ko esaldia bezala (ikus 2. irudia):

- | | | | |
|------|------------------------------------|--------------------------------|----------------------------|
| (11) | B G-

nire lagunen alabia | B G-

umiari biberoya | G*+B


emóten jun da |
|------|------------------------------------|--------------------------------|----------------------------|

Esaldi honen bigarren silaban gorakada bat dago, eta goiko tonua mantendu egiten da *alabia* hitzaren azken silabara arte. Hurrengo hitzeko lehen silabak tonu baxua dauka (i.e., *u*), eta hurrengoko silabak (i.e., *.mi*) berriro ere tonu altua, hortik aurrera tonua mantenduz azenturaino (*emóten* hitzak daukana). Behetik gorako tonu mugimendu bi ditugu beraz, bat esaldi hasieran eta beste bat *umiari* hitzean. Behetik gorako mugimenduak Azentu Osagaiaren seinalea badi-ra, Azentu Osagai bi ditugu: bat *nire lagunen alabia* zatiak osatzen duena, eta bestea *umiari biberoya emóten* zatiak osatzen duena. Baina orduan posiblea dela Azentu Osagai bat izan tonu azenturik gabe ondorioztatzen da; gure (11) adibidean, lehen Azentu Osagaiak ez dauka G*+B azenturik, azken hitza azentugabea delako (*alabia*), baina hor bukatzen da Azentu Osagaia. Hau da, bigarren Azentu Osagaiak badauka G*+B azentu bat, baina lehenak ez. Ondorioa orduan da Azentu Osagai baten eskema ez dela [B G- G*+B] zehazki, baizik eta [B G- (G*+B)], hau da, azentua ez da beharrezkoa Azentu Osagai bat izateko (horregatik parentesiak). Eta era berean, beste ondorioa izango litzateke bigarren silabatik eta Azentu Osagaiaren bukaerarainoko bitarteko silaben goiko tonua ez dela azentuaren G* tonutik hedatzen, baizik eta bigarren silabako goiko tonutik (i.e., G- tonutik).

Pierrehumbert-en (1980) teoria jarraituz, hasierako tonu baxu hori muga tonua dela esango dugu (*boundary tone*), Azentu Osagai baten ezkerreko muga adierazten duelako. %B bezala markatuko dugu. Eta Jun eta Elordieta (1997) jarraituz, bigarren silabako goiko tonua osagaiko tonua dela esango dugu, tonu hori ez delako lerratzen silaba batekin bakarrik, baizik eta silaba multzo batetara hedatzen delako (ingelesez tonu hoiek *phrasal tone* deitzen dira). Tonu hau G- bezala markatuko dugu (cf. Jun eta Elordieta 1997). Azpimarratu behar da %B eta G- tonuak ez direla hitz mailakoak, G*+B tonu-azentua bezala, baizik eta Azentu Osagaiarenak. Hau da, Azentu Osagai batek %B

eta G- ditu, egitura fonologikoan lehen silabari eta bigarren silabari ezartzen zaienak.

Hurrengo egitura eskematikoak Lekeitioko euskalkiko intonazioaren egitura erakutsiko luke, Azentu Osagai maila eta Hitz maila jerarkikoki antolatuta eta bakoitzari dagozkion tonuekin. Adibidea (10)-eko esaldia da:




Ulertu behar da %B eta G- maila batekoa direla eta G*+B beste batekoa, baina hemendik aurrera aurkezpena errazteko ez ditugu bi maila horiek ezberdinduko, eta lerro berberean jarriko ditugu hiru tonu mota horiek.

Aditzaren partean ikusten den beheko tonuari dagokionez, esan beharra dago Lekeitioko euskalkian, Bizkaiko iparraldeko eta beste tokietako euskalki askotan bezala, aditzak eta honen osteko hitzek tonu maila oso bajua daukatela. Aditzaren aurreko osagaiak prominentzia prosodikorik haundiena du, eta prominentzia honen inpresioa G*+B azentuaren bidez eta aditzaren tonu maila bajearekin lortzen da.

Hurrengo galdera izango litzateke nola hedatzen den goiko tonua bigarren silabatik Azentu Osagaiaren bukaerara arte. Erantzuna da hedadura prozesu baten bidez egiten dela, lehen aipatu dugun bezala. Hedadura prozesu autosegmentala da, hots fonologikoa: silaba batzuk tonua daukate lerratuta, hitz mailakoa (i.e., azentua) edo Azentu Osagaiarena (B% edo G-), baina beste batzuk ez daukate tonurik, hasiera batean behintzat tonuak silaba zehatz batzuei lerratzen zaielako. Tonua lortzeko, tonu bat tonurik ez daukaten silabetara hedatzen da, eta beraz silaba hauetan alboko tonu horren balioa

garatzen da. Silaba hauek lortutako tonuak orain besteek bezala ahoskatu daitezke fonetikoki, gutxi gora behera maila berbera izanik. Hain zuzen ere, hau da ikusten duguna Lekeitioko esaldietan; bigarren silabatik Azentu Osagaiaren bukaeraraino goiko tonuzko silabek oso tonu maila egonkorra erakusten dute, gorakada edo beherakada nabarmenik gabe. Hau 2. irudian ere ikusten da. Horrelako patroiek tonu hedadura fonologikoa dagoela antzematen dute.

Prozesu hau (11)-ko esaldirako honelakoa izango litzateke:



Tonurik ez daukaten silabek edo hitzek beste modu batera lortu dezakete tonua, interpolazio fonetikoaren bidez. Hau azaleko prozesua da, eta tonurik gabeko silabek tonu biren arteko loturaren bitartez lortzen dute tonua. Hau da, tonu batetik besterako mugimendu edo transizioaren bidez lortzen dute bitarteko silabek azaleko tonua. Prozesu honen bidez erdiko silaba hauen tonuen balioa ez da albokoen bezalakoa, fonologikoki ez zaielako eman, eta hemen beherakadak eta gorakadaxoak ere ikusten dira. Tokyoko japonieraz G- bezalako tonu bat dago bigarren morari ezartzen zaiona, baina hurrengoko silabek interpolazio fonetikoaren bidez jasotzen dute tonua, ez hedadura arau fonologiko baten bidez (Pierrehumbert eta Beckman 1988).

Dena den, ezberdintasun bat dago Azentu Osagai batean G*+B azentua dagoenean edo ez dagoenean. Azentu bat badago, Azentu Osagai bat derrigorrez bukatzen da, eta ondoren beste Azentu Osagai bat hasten da. Baina azenturik gabe nola osatu daiteke Azentu Osagai bat? Beste era batera esanda, zeintzuk dira hiztunek erabiltzen dituz-

ten irizpideak Azentu Osagaien eskubiko mugak jartzeko, azenturik gabe, (11)-n bezala? Erantzuna ez da erraza, eta ez dugu aurkituko eredu orokorrik. Hitzun batzuek ez dute inoiz Azentu Osagairik osatzen ez bada azentu batekin, eta antza dagoenez (11) bezalako mugak sarriago suertatzen dira hizkera geldia duten hitzunen artean. Are gehiago, hauen artean ere ez dago arau garbirik mugak jartzeko. Normalean bi hitz azentugabe baino gehiago jarraian daudenean ezartzen dituzte muga prosodiko edo intonazionalak, agian hitz gehiegi ez ahoskatzeko goiko tonu berberan. Batzutan bi sintagma edo osagai sintaktikoen artean agertzen dira mugak, goiko adibidean bezala (sujetua eta menpeko esaldiko zeharkako objektuaren bitartean), eta beste batzutan sintagma baten barneko hitz azentugabe biren artean. Azenturik gabeko Azentu Osagai hauek hitzunik agian garrantzitsuena den hitz edo sintagma baten aurrean jartzen ditu, nolabait sintagma edo hitz hau azpimarratzeko.

%B eta G- fonetikoki gauzatzeko murriztapenak ere aipatu behar dira. Hau da, azalean ez dugu beti izango beheko tonu bat eta azentuzkoa ez den gorakada bat. Hitz baten lehen silaba azentuduna baldin bada, azentuak lehentasuna du eta %B ez da gauzatzen, eta hitz baten bigarren silabak badarama azentua, orduan %B gauzatzen da baina G- ez. Adibidez:

- (14) a. G^*+B
|
mó.no
- b. %B G^*+B
| |
bal.tzá
- c. %B G^*+B
| |
mu.tí.llak

Ikusi dugu (10) esaldiak hiru Azentu Osagai dituela, eta 1. irudian ikusten da lehengo bi azentuek gailurrak direla oinarrizko maiztasunaren kurban. Baina bi gailur horietatik bigarrena lehena baino askoz bajuagoa agertzen da. Aldiz, (11)-ri dagokion 2. irudian, azentuaren gailurrak ez du galtzen aurreko Azentu Osagaiaren goiko tonu maila; maila berdintsua mantentzen du. Ezberdintasunaren arrazoia tonu azentuen mailakatzea da, ingelesez *downstep* deitzen dena (*catathesis* ere deitu izan da). Prozesu honen bidez, G^*+B azentu batek hurrengo G^*+B azentua mailakatu egiten du proportzio zehatz batetan (ikusi adibidez Pierrehumbert-en 1980 mailakatzeko proporzioa kalkulatzeko formula matematikoak). Eta ez dira azentu lexikalak bakarrik mailakatu daitezkenak; aditzaren aurrean doazen hitz azentugabeen azentuen oinarrizko maiztasuneko balio absolutuak jeitsi daitezke arinagoko G^*+B azentu baten eraginez. Adibidez, (15) esaldiko *umiá* hitzaren azentua aurreko hitzaren azentua baino bajuagoa da (cf. 3. irudia). Hemendik aurrera, %B eta G- tonuak azalpenetarako beharrezkoak ez direnean ez ditugu jarriko; hurrengoko adibideetan G^*+B azentuek bakarrik daukate garrantzia eztabaidarako):

(15) G^*+B G^*+B
 | |
 Amáyen umiá allaga da

(11) esaldian *emóten* hitzaren aurretik ez dagoenez beste azenturik, ez dago mailakaterik eta gailurraren goiko tonu maila mantendu egiten da.

Azentuen arteko mailakatzea are argiago ikusten da hurrengo adibidean, lau azenturekin (ikus 4. irudia):

(16) G^*+B G^*+B G^*+B G^*+B
 | | | |
 Amáyen lagúnen umién oyá

Esaldi honen F0 kurbak erakusten duen bezala, lau azentuen gailurrek eskilara baten antzeko irudia osatzen dute, hau da, mailakatzea prozesu iteratiboa dela erakusten du. Baina orain aztertu behar duguna da ea murriztapenik dagoen mailakatze prozesu honengan. Hau da, edozein gailurrek eragin dezake prozesu hau hurrengo gailur batean, ala ez? Ondoren ikusiko dugun bezala, mailakatzeak murriztapenak izan baditu.

(17) bezalako esaldi baten, hiru azenturekin, ikusten dugu nola bigarren gailurra (*amumári* hitzarena) mailakatu den lehen azenturekin konparatuz (*Amáyen* hitzarena), baina bigarren azentu honek ez du jeitsi eragiten hurrengo azentuaren gailurra, *liburúa* hitzarena (ikus 5. irudia):

(17) G*+B G*+B G*+B
 | | |
 Amáyen amumári liburúa emon dotzo

Jeitsiera prozesu honen geldiketaren arrazoa da lehen bi hitzak eta hirugarren hitza talde edo osagai prosodiko ezberdinetan daudela, hots Erdi-Mailako Osagai ezberdinetan. Arau orokor bezala, sintasizko sintagmen edo proiektzio naguzien mugak Erdi-Mailako mugak dira prosodian ere. Hau da, Izen Sintagma, Aditz Sintagma eta abar intonazioaren egituraren Erdi-Mailako Osagaiak dira. (17)-ko esaldian *Amáyen amumári* Izen Sintagma bat da, eta *liburúa* beste bat; beraz, bi Erdi-Mailako Osagai ditugu prosodian. Osagai prosodikoek mugak dituzte, eta esaldi honen kasuan mugak sintagma bi hoi artean daude. Hau honela izanik, asma dezakegu mailakatze prozesuaren eremua Erdi-Mailako Osagaia dela. Erdi-Mailako Osagai baten barneko Azentu Taldeen artean mailakatzea egon daiteke, baina Erdi-Mailako Osagai batetik beste Erdi-Mailako Osagai batera ezin da mailakatzerik gertatu. (16) esaldian, lau hitzok lau Azentu Osagai osatzen dituzte, baina Izen Sintagma bat osatzen dute eta beraz Erdi-

Mailako Osagai bat ere; horregatik gertatzen da azentu mailakatzea (17) esaldian, oster, hiru Azentu Talde hoiek bi Erdi-Mailako Osagaietan banatzen dira, eta horregatik ikusten dugu tonu mailakatzearen geldiketa.

Badira, dena den, kasu batzuk aipagarriak direnak: esaldi baten lehengo sintagmak azentu bat bakarrik badauka, ez du Erdi-Mailako Osagai bat osatzen, eta hurrengo sintagmak osatutako Erdi-Mailako Osagaien sartzen da. (18)-n ikusten da hau; 6. irudiak erakusten duen bezala, tonu mailakatzea dago lehen eta bigarren azentuen artean. Baina bi hitz horiek Izen Sintagma ezberdinetan daude (bata zeharkako objektuan eta bestea objektu zuzenean), eta beraz printzipioz emandako arau orokorraren arabera bi Erdi-Mailako Osagai ezberdinetan egon behar ziren. Hala izanik, ez zen mailakatzerik egon behar. Dirudienez, orduan, badago murriztapen bat ere Erdi-Mailako Osagaiak osatzeko, esaldiaren ezker aldekoak behintzat: hauek ezin dute Azentu Talde bat bakarrik izan, eta hurrengo sintagmarekin osatzen dute Erdi-Mailako Osagai bat. Beraz, esaldi honetan hiru Azentu Talde ditugu (bakoitza bere azentuarekin), baina Erdi-Mailako Osagai bat bakarrik; horregatik daukagu tonu mailakatze edo jeitsiera. Bigarren Izen Sintagmaren bigarren azentua (*liburúarena*) jeitsi egin da aurrekoaren eraginez (*Amáyer*), baina hau espero dezakeguna da Erdi-Mailako Osagai baten barruan

(18) G*+B G*+B G*+B
 | | |
 IS[amumári] IS[Amáyer liburúa] emon dotzat

Bukatzeko, goiko mailara joko dugu: Intonazio Osagaia. Osagai honek Erdi-Mailako Osagai bat edo gehiago izan ditzake. Intonazio Osagaia esaldi simple edo konplexu oso bat izan daiteke, baina esaldi konplexu baten barruan ere egon daitezke Intonazio Osagai bat baino gehiago. Adibidez, esaldi parentetikoak Intonazio Osagaiak dira, hurrengo esaldirako kortxetez adieratzen ditugun bezala:

(19) [Míren nire laguna], [lein bankúan étxen ebana biarra], [datorren astián eskontzén da]

Esalditik banatuta bezala ahoskatzen diren mintzagaiak edo esaldi menperatuak ere Intonazio Osagaiak osatzen dituzte:

(20) [dirua emón nabengan], [Amayenáera ein dogu]

Normalean Intonazio Osagai baten eskumako muga muturrean dagoen silaba luzeagoa da beste inon baino, eta hori Intonazio Osagaiaren ezaugarri argi bat da. Adibidez, (19) eta (20)-ko hiru Intonazio Osagaien eskumaldeko silabak beste silaba batzuk baino luzeagoak dira. Etenaldiak ere egon daitezke Intonazio Osagai biren artean, baina ez derrigorrez.

Intonazio Osagaiak baditu tonu ezaugarriak ere. Ezkerreko mugan %B tonuak ditugu normalean, hau da, beheko tonuan hasten dira esaldiak, gero gorakada egiteko. Bukaeran B% ere izan daukagu esaldi deklaratioetan eta galderetan. G% ere aurkitu daiteke batzutan hitzun gazteen artean galderak bukatzerakoan, agian gazteleraren eraginez. Baita zerrenda motako esaldietan ere. Ondoren esaldi mota nagusi hauen intonazio ereduak aztertuko ditugu.

4. ESALDI MOTA NAGUSIEN INTONAZIO EREDUAK

4.1. Deklaratzaileak

Esan bezala, ezkerrean %B tonuak daude esaldi deklaratioetan, eta bukaeran ere B% tonuak daude. Bitartean dauden tonuak hitzenak edo Azentu Osagaienak dira. Honakoak nahiko ikusi ditugu.

gaiak edo esaldi menperatuak ez daukate gorakadarik, hots ez daukate G% muga tonurik. Aldiz, mantendu egiten da bukaeran ere azken Azentu Osagaiaren bigarren silabatik datorren goiko tonua, hau da, G- tonuarena, jarraitzen duen esaldiak goragoko tonua duelarik (cf. 10. irudia):

(23) dirua emón nabenian, Amayenára ein dogu

5. ONDORIOAK

Besterik gabe, honela bukatzen dugu lantxo hau. Bizkaiko doinu-azentuzko euskalkien intonazioaren azterketa teorikorako oinarriak azaldu ditugu, Lekeitioko euskalkia adibide bezala erabiliz. Elordieta eta alii-k (1999) eta Gamindek (1997) erakutsi duten bezala Bermeo eta Gatikako euskalkiekin, Bizkaiko iparraldeko euskalkiek oso antzeko intonazio ereduak dituzte. Baina Hualde, Elordieta eta Gamindek (prestatzen) frogatu duten bezala, patroi hori ez da Bizkaia osoan erabiltzen, Durangaldean eta Arratian esate baterako. Gure susmoa da intonazio ereduaren arteko isoglosak azentu eredu mota nagusien isoglosekin lotuta daudela.

Azkenik, lan honekin euskalkien intonazio ereduaren deskribaketa eta azterketa teorikoengan interesa sortu edo bultzatzen badugu, eta jende gehiago animatzen bada honako ikerketak egitera, gure helburuak lortu egin ditugula esan genezake. Hainbat gai eta gauza utzi izan behar ditugu albo batera, orri kopuruen beharrezko baldintzak direla eta, baina zehaztasun edota adibide eta irudi gehiago nahi izan ezker, Elordieta (agertzeko a, b) eta Jun eta Elordieta (1997) irakur daitezke. Doinu-azentuzko euskalkiak ez diren intonazioari buruz, ikusi Elordieta (agertzeko b, c).

AIPAMENAK

Altube, Seber. 1934. *Observaciones al tratado de 'Morfología vasca' de Don R. M. de Azkue*. Bermeo: Gaubeka. [1969-n berrargitaratua Azkue-ren 1969 3. alearekin (1923)].

Azkue, Resurrección María. 1931. "Del acento tónico vasco en algunos de sus dialectos". *Euskera* 4.282-318, I. partea.

Azkue, Resurrección María. 1932. "Del acento tónico vasco en algunos de sus dialectos". *Euskera* 6.3-50, II. partea.

Elordieta, Gorka. Agertzeko a. "Intonation in a pitch-accent variety of Basque". *ASJU* 28.

Elordieta, Gorka. Agertzeko b. "Intonation". In *A Grammar of Basque*, José Ignacio Hualde (ed.). Berlin: Mouton de Gruyter.

Elordieta, Gorka. Agertzeko c. "Primer estudio comparativo de la entonación de tres variedades dialectales vascas". *Actas del I Congreso de Fonética Experimental*, Barcelona: Servicio Editorial de la Universitat de Barcelona.


Elordieta, Gorka, Iñaki Gaminde, Inma Hernáez, Jasone Salaberria eta Igor Martin de Vidales. 1999. "Another step in the modeling of Basque intonation: Bermeo". In *Text, Speech and Dialogue*, Václav Matoušek, Pavel Mautner, Jana Ocelíková and Petr Sojka (ed.), 361-364.

Gaminde, Iñaki. 1997. *Gatikako euskara*. Eskuizkribua, EHU.


Hualde, José Ignacio. 1997. *Euskal azentuerak*. *ASJU Gehigarriak* 42. Bilbo eta Donostia: EHU-ko Argitalpen Zerbitzua eta Gipuzkoako Foru Aldundia.

Hualde, José Ignacio, Gorka Elordieta eta Arantzazu Elordieta. 1994. *The Basque dialect of Lekeitio*. *ASJU Gehigarriak* 34. Bilbo eta


- Donostia: EHU-ko Argitalpen Zerbitzua eta Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Hualde, José Ignacio, Rajka Smiljani(eta Jennifer Cole. 1999. "The accented/unaccented distinction in western Basque". Eskuizkribua, University of Illinois.
- Jun, Sun-Ah, eta Gorka Elordieta. 1997. "Intonational structure of Lekeitio Basque". *Intonation: Theory, models and applications. Proceedings of an ESCA Workshop*, Antonis Botinis, Georgios Kouroupetroglou eta George Carayiannis (ed.), 193-196. Atenas, Grezia: European Speech Communication Association.
- Pierrehumbert, Janet. 1980. *The Phonetics and Phonology of English Intonation*. Doktorego tesia, MIT. (1987-n Indiana University Linguistics Club-ek zabaldua).
- Pierrehumbert, Janet, eta Mary Beckman. 1988. *Japanese Tone Structure*. Cambridge, Mass.: MIT Press.
- Quilis, Antonio. 1981. *Fonética acústica de la lengua española*. Madril: Gredos.




1. irudia




2. irudia




3. irudia




4. irudia




5. irudia




6. irudia




7. irudia



8. irudia



9. irudia



10. irudia